I. ATALA

# BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

## Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFE)

**Birjinetxe Laguntza Zentroan desagertzear dauden 4 laguntzako langile lanpostu amortizatzea eta 4 zerbitzari-garbitzaile lanpostu sortzea; eta Birjinetxe Laguntza Zentroko zerbitzari-garbitzaile plaza 1 eta laguntzako langile lanpostu 1 (desagertzeko) amortizatzea, osasun-laguntzaile plaza eta lanpostua sortzeko xedatzen duena.**

GUFEko Gobernu Batzordeak, 2022ko martxoaren 11ko bileran, erabaki du, besteak beste, GUFEko kudeatzaileak 2022ko otsailaren 9an emandako ebazpena baliozkotzea, honela:

«*Lehenengoa:* Birjinetxe Laguntza Zentroan desagertzear dauden lau —4— laguntzako langile lanpostu amortizatzea eta lau —4— zerbitzari-garbitzaile lanpostu sortzea; eta Birjinetxe Zentroko zerbitzari-garbitzaile plaza bat —1— eta desagertzear dagoen laguntzako langile lanpostu bat —1— amortizatzea, osasun-laguntzaile plaza eta lanpostu bat —1— sortzeko zentro berean.

*Bigarrena:* Ebazpen honek onesten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, salbu eta 5202-0002/5126-0147 zenbakiarekin identifikatutako laguntzako langile-zerbitzari garbitzaile lanpostuarenak (amortizatua eta sortua, hurrenez hurren). Lanpostu horren ondorioak otsailaren 15era arte atzeratuko dira.

Nolanahi ere, ondoren esango den moduan baliozkotu ahal izango da, aginduzko eta ondorengo argitalpenarekin batera, erantsitako dokumentuan adierazitako forma eta irismenarekin. Lanpostu eta/edo plaza berriak betetzeko ezaugarriak, betekizunak eta baldintzak ezarritakoak eta eranskin horretan deskribatzen direnak izango dira.

*Hirugarrena:* Kontuan harturik zer aurreikusten duen Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2022. urteko Aurrekontuei buruzko abenduaren 30eko 8/2021 Foru Arauak bere 12. artikuluan, zeinak I. kapituluko gastu-gehikuntzaren muga baitu hizpide, hemen zehazten diren plazak eta lanpostuak amortizatzeak ez dakar I. kapituluko gastua handitzerik, erantsitako txosten ekonomikoan egiaztatzen denez.

*Laugarrena:* Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, aurreko txostenarekin batera, eta berau arrazoitzeko balio du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Halaber, ohartarazten zaie erabaki honen aurka demanda jar dezaketela lan-arloko jurisdikzio-bidean, jaso eta bi hilabeteko epean.

*Bosgarrena:* Erabaki honen berri ematea Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzari, Birjinetxe Laguntza Zentroko Zuzendaritzari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko buruari.

*Seigarrena:* Ebazpen hau Gobernu Batzari jakinaraztea, hark egingo den hurrengo bileran, baliozkotzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 52. artikuluan xedatzen denarekin bat etorrita.

*Zazpigarrena:* Ebazpen hau GUFEren iragarki oholean eta web orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.»

Bilbon, 2022ko martxoaren 11n.—GUFE-ko Gerentea, David Latxaga Ugartemendia

eek: BAO-2022a059-(I-253)

ERANSKINA

## LANPOSTUEN AMORTIZAZIOAK

*22102—Birjinetxe Laguntza Zentroa*

| Lan-postua | Izena | T/A | FL | LM | BS | Ordainsariak | | Betetzeko eskakizunak | | | | | | | Baldintzak | | | | | | PE1 | PE2 | Oharrak | Lan-postua | Lantokia | Deskripzioa | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | OM | Osag. ber. (€) | Ad. | T/A | ES | AE | Plaza | Titu. | HE | ES | DM | DB | B | T | X | | | | | | | |
| 5202 | LAGUNTZAKO LANGILEA (DESAGERTZEKOA) | LLTT | L | N | 1 | 11 | 18.322,29 | 1 | LLTT | | | 5006 | | 1 | | | E | B | B | E | B | E | | 2 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | |
| | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | 4 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | |
| | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | 5 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | |
| | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | 10 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | |
| | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | 11 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | |

## LANPOSTUAK SORTZEA

*22102—Birjinetxe Laguntza Zentroa*

| Lan-postua | Izena | T/A | FL | LM | BS | Ordainsariak | | Betetzeko eskakizunak | | | | | | | Baldintzak | | | | | | PE1 | PE2 | Oharrak | Lan-postua | Lantokia | Deskripzioa | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | OM | Osag. ber. (€) | Ad. | T/A | ES | AE | Plaza | Titu. | HE | ES | DM | DB | B | T | X | | | | | | | |
| 4178 | BIRJINETXE LAG.-ZENTR. OS.-LAG. | C/C2 | L | N | 1 | 14 | 22.152,74 | 1 | C/C2 | | | 4001 | | 2 | | | E | B | B | E | B | B | | 68 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | 2022/02/09 |
| 5126 | TXANDAKAKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA | LLTT | L | N | 1 | 11 | 18.322,29 | 1 | LLTT | | | 5003 | | 1 | | | E | B | B | E | B | E | 3 | 147 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | 2022/02/15 |
| | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | 148 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | 2022/02/09 |
| | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | 149 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | 2022/02/09 |
| | | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | | | | 150 | 2300 | BIRJINETXE LAG. Z. | 2022/12/31 |

eek: BAO-2022a059-(I-253)

## LITERALEN ERANSKINA

| T/A: Sarbideko taldea/azpitaldea | FL: Funtzionarioa edo lan-kontratukoa | LM: Lanpostu mota | BS: Betetzeko sistema |
|---|---|---|---|
| A: Unibertsitateko graduko tituludunak<br>A1: (* lehen A taldea)<br>A2: (* lehen B taldea)<br>C:<br>C1: Batxilerra edo teknikaria (* lehen C taldea)<br>C2: DBH-ko graduatua (* lehen D taldea)<br>LLTT: Langile-taldeak (* Lehen E taldea)<br>(*) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorreko bigarren paragrafoa aplikaturik). | F: Funtzionario<br>L: Lan kontratua | B:Berezitua<br>N: Normalizatua | 1: Lehiaketa<br>2: Izendapen askea |

| Betetzeko eskakizunak | | |
|---|---|---|
| Admin.: Administrazioa | ES: Eskala | AE: Azpieskala |
| 1: Aldundia<br>2: Estatu Gaikuntza<br>3: Edozein herri administrazio | O: Orokorra<br>B: Berezia<br>A: Biak | 1: Teknikariena<br>2: Administrariena<br>3: Laguntzaileena<br>4: Menpekoena<br>5: Zerbitzu bereziak |
| Plaza: Lanpostua eskura dezaketen plantilako kategoriak (ikus erantsitako zerrenda)<br>Titu.: Titulazioa (ikus erantsitako zerrenda)<br>HE: Hizkuntz Eskakizuna<br>1: H.E.1<br>2: H.E.2<br>3: H.E.3<br>4: H.E.4<br>5: H.E.4 T.G. | | |

| Ordainsariak |
|---|
| OM: Lanpostu-mailako osagarriaren maila<br>Osag. ber: Osagarri berezia |

| Baldintzak (B = Bai / E = Ez) | |
|---|---|
| ES: Esperientzia (1, 2, .., 9 urte edo E)<br>DM: Dedikazio Murriztua<br>DB: Dedikazio Berezia | B: Bateraezintasuna<br>T: Txandakotasuna<br>X: Prestasuna |

| Plusak (B = Bai / E = Ez) |
|---|
| PE1: Toxikoa, Nekagarria edo Arriskutsua<br>PE2: Gaueko edota Jaiegunetako lana |

| Plaza | | | | | | Titulazioak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4001 | 350 | GELAZAINBURUORDEA | | 651 | ITSAS ETXEKO MANDATARIA | |
| | 550 | OSASUN-LAGUNTZAILEA | | 720 | ZERBITZARI-GARBITZAILEA | |
| | 630 | JAGOLEA | | 721 | ITSAS ETXEKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA | |
| | 645 | ZERBITZU TEKNIKOETAKO OFIZIALA | | 740 | SUKALDEKO LAGUNTZAILEA | |
| | 660 | BIGARREN MAILAKO OFIZIAL GIDARIA | 5006 | 346 | ITSAS ETXEKO GELAZAINBURUA | |
| | 665 | GIDARIA | | 640 | ATEZAINA ETA MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEA | |
| | 710 | SUKALDARI-ZERBITZARIA | | 650 | MANDATARIA | |
| | 770 | LAGUNTZAKO LAGUNTZAILEA | | 651 | ITSAS ETXEKO MANDATARIA | |
| 5003 | 346 | ITSAS ETXEKO GELAZAINBURUA | | 720 | ZERBITZARI-GARBITZAILEA | |
| | 640 | ATEZAINA ETA MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEA | | 721 | ITSAS ETXEKO ZERBITZARI-GARBITZAILEA | |
| | 650 | MANDATARIA | | 740 | SUKALDEKO LAGUNTZAILEA | |

| Oharrak | |
|---|---|
| 3 | «Arrisku txikiko elikagaien manipulatzailea» prestakuntzari dagokion ziurtagiri indibiduala |

eek: BAO-2022a059-(I-253)